

**GARRAIO, MUGIKORTASUN ETA HIRI AGENDA KO MINISTERIOAREN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO FORU HITZARMENA, ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOEN ARLOAN EGUNERAKETA EGITEKO.**

#### BILDU DIRA

..... jauna/andrea, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren ordezkartzan.

.....jauna/andrea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren ordezkartzan.

.....jauna/andrea, Arabako Foru Aldundiaren ordezkartzan.

Alderdi biek akordio hau izenpetzeko ahalmen juridikoa aitortu diote elkarri, eta, horrenbestez, honako hau

#### ADIERAZTEN DUTE

Historikoki, Euskal Autonomia Erkidegoko foru lurraldeek araubide pribatuan egikaritu dituzte errepide bidezko garraio mekanikoko eskubide eta eskumen batzuk.

Arabako Lurralde Historikoari dagokionez, araubide hau, gainera, denboran zehar etenik gabe mantendu da eta Arabako Foru Aldundiaren eta garaiko Obra Publikoen Ministerioaren artean 1950eko martxoaren 9an sinatu ziren eta egun indarrean dauden hitzarmenetan zehatz-mehatz jasota dago.

Abuztuaren 25eko 2488/1978 eta ekainaren 18ko 1446/1981 Errege Dekretuen bidez, estatutik Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatu ziren lurreko garraioen arloko zenbait zerbitzu, eta, ondoren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiei eskualdatu zitzaizkien, hain zuzen ere, 1985eko martxoaren 5eko 36/1985, 56/1985 eta 46/1985 Dekretuen bidez.

Jarraian, lurreko garraioen erregulazioa sakonki berrikusi zen, eta Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legea eta estatuak autonomia erkidegoei errepide eta kable bidezko garraioei dagokienez ematen dien ahalmenei buruzko uztailaren 30eko 5/1987 Lege Organikoa egin ziren.

Uztailaren 30eko 5/1987 Lege Organikoaren xedapen gehigarrian zehaztuta dago Arabako Foru Aldundiarekin akordioa sinatu aurretik, egun dauden hitzarmenez baliatuz, Arabako Foru Aldundiak bere lurralde eremua

**CONVENIO ENTRE EL MINISTERIO DE TRANSPORTES, MOVILIDAD Y AGENDA URBANA, LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA DE ACTUALIZACIÓN FORAL EN MATERIA DE TRANSPORTES POR CARRETERA.**

#### REUNIDOS

D./Dña....., en representación de (Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana).

D. /Dña.....en representación de (la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes).

D./Dña.....en representación de (Diputación Foral de Álava).

Las partes se reconocen capacidad jurídica necesaria para suscribir el presente Convenio y en su virtud,

#### EXPONEN

Históricamente los Territorios Forales del País Vasco han venido ejerciendo en régimen privativo un conjunto de derechos y competencias en materia de transporte mecánico por carretera.

En lo que se refiere al Territorio Histórico de Araba, este régimen, además, se ha mantenido ininterrumpidamente a lo largo del tiempo, siendo objeto de plasmación concreta en los vigentes Convenios de 9 de marzo de 1950 suscritos entre la Diputación Foral de Álava y el entonces Ministerio de Obras Públicas.

Por medio de los Reales Decretos 2488/1978, de 25 de agosto y 1446/1981, de 18 de junio, se traspasaron desde el Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco determinados servicios en materia de transportes terrestres que, posteriormente, fueron traspasados, a su vez, a las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, mediante los Decretos 36/1985, 56/1985 y 46/1985, todos ellos de 5 de marzo de 1985.

Posteriormente, la regulación de los transportes terrestres fue objeto de una importante revisión, dictándose la Ley 16/1987, de 30 de julio, de Ordenación de los Transportes Terrestres y la Ley Orgánica 5/1987, de 30 de julio, de Delegación de Facultades del Estado a las Comunidades Autónomas en relación con los transportes por carretera y por cable.

La Disposición Adicional de la Ley Orgánica 5/1987, de 30 de julio, dispone que, previo acuerdo con la Diputación Foral de Álava, se adaptarán las facultades y competencias que, en virtud de los Convenios

gainditzen duten garraioekiko dituen ahalak eta eskumenak Lege Organiko horretan ezarritako antolamendu eta eskumen esparruari egokituko zaizkiola. Hala ere, bertan aurreikusita dagoen eginkizunen eskuordetze araubidea bakar-bakarrik Arabako Foru Aldundiari aplikatuko zaio, aldundiak dituen eskumenak gehitzen diren neurrian. Gainera, Arabako Foru Aldundiak Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundientzat ezarritakoa parekatzeko, aurrekoekin beharrezko akordioak sinatuko dira uztailaren 30eko 5/1987 Lege Organikoan ezarritakoaren esparruan.

Ondorioz, xedapen gehigarri horretan aurreikusita dago Espainiako Konstituzioak berariaz babesten eta errespetatzen dituen foru lurraldeen eskubide historikoak eguneratuko direla.

Testuinguru horretan, eta eguneraketa hori egiteko eta araubide historikoa errepide bidezko erregulazio berriari egokituz, beharrezkotzat jo da 1950eko martxoaren 9ko hitzarmenak berrikustea eta araubide berria gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten lurralde historikoetan aplikatzea eta autonomia erkidegoko erakunde komunek horretan parte hartzea, eta hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.32 eta 12.9 artikuluek eta Autonomia elkarte osorako erakunde eta bertako kondaira lurraldeetako foruzko ihardutze erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 10. artikuluz baliatuz eta erakunde horiei dagozkien araudi eta koordinazio eskumenetan oinarrituz egingo da.

Modu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Arabako Foru Aldundiak eta Estatuko Administrazio Orokorrak, adostasunez, honako hau

#### HITZARTZEN DUTE

##### Lehenengoa. - XEDEA.

Hitzarmen honen xedea Arabako Lurralde Historikoak bere lurralde eskumena gainditzen duten garraioekin lotuta dituen ahalak eta eskumenak indarrean dagoen antolamendu eta eskumen esparrura egokitzea da, eta, horretarako, honakoetan aurreikusitako esparruan eguneratuko dira: Espainiako Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarria, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren xedapen gehigarria eta estatuak autonomia erkidegoetan errepidez eta kable bidez egiten dituen garraioei buruzko eskumenak eskuordetzeari buruzko uztailaren 30eko 5/1987 Lege Organikoaren xedapen gehigarria.

##### Bigarrena. - BIDAIARIEN OHIKO GARRAIO PUBLIKOA.

actualmente existentes, ejerce la misma en relación con los transportes que exceden de su ámbito territorial, al marco de ordenación sustantiva y competencial establecido en dicha Ley Orgánica. No obstante, el régimen de delegación de funciones previsto en ésta únicamente será aplicable a la Diputación Foral de Álava en la medida en la que implique una ampliación de las competencias que la misma ostenta. Además, a fin de equiparar lo establecido respecto a la Diputación Foral de Álava para las Diputaciones Forales de Bizkaia y Gipuzkoa, se establecerán los oportunos acuerdos con las mismas en el marco de lo establecido en la Ley Orgánica 5/1987, de 30 de julio.

Esta Disposición Adicional prevé, en consecuencia, la actualización de los derechos históricos de los territorios forales que la Constitución Española expresamente ampara y respeta en su Disposición Adicional Primera.

En este contexto y para realizar dicha actualización, adecuando el régimen histórico a la nueva regulación de los transportes por carretera, se considera procedente revisar los Convenios de 9 de marzo de 1950, haciendo extensivo además el nuevo régimen al conjunto de los Territorios Históricos que integran hoy la Comunidad Autónoma del País Vasco, con participación también, de las Instituciones Comunes de ésta en base a las facultades normativas y de coordinación que a las mismas corresponden en virtud de los artículos 10.32 y 12.9 y la Disposición Adicional del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, y del artículo 10 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos.

De este modo, la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la Diputación Foral de Álava de una parte y la Administración General del Estado de otra, de mutuo acuerdo,

#### CONVIENEN

##### Primera. - OBJETO.

El presente Convenio tiene por objeto la adaptación al marco de ordenación sustantiva y competencial vigente de las facultades y competencias del Territorio Histórico de Álava en relación con los transportes que exceden de su ámbito territorial, mediante su actualización en el marco de lo previsto en la Disposición Adicional Primera de la Constitución Española, en la Disposición Adicional del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, así como en la Disposición Adicional de la Ley Orgánica 5/1987, de 30 de julio, de Delegación de Facultades del Estado en las Comunidades Autónomas en relación con los transportes por carretera y por cable.

##### Segunda. - TRANSPORTE PÚBLICO REGULAR DE VIAJEROS.

**1.- Ohiko garraio publikoak.**

Honako eskumenak ditu Arabako Foru Aldundiak, albo batera utzi gabe bidaiarien barneko lineen eta zerbitzuen gainean dituen eskumenak, betiere horien ibilbideek ez badituzte gaintzen haren lurralde mugak, horri buruzko eskumen banaketaren arabera:

a) Lurralde Historikoaren eremuan egindako zerbitzu partzial guztien sortze, ezarpen, aldaketa eta ezetzatze espedienteak izapidetzea eta ezabzea, betiere horiek bidaiarien barneko linea ohikoen barne badaude eta ibilbidea autonomia erkidego batetik baino gehiagotik igarotzen bada.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan jatorria eta helmuga duten trafikoak dituzten zerbitzuei buruzko sortze, ezarpen, aldatze, ezabatze eta erreskate espedienteen xede diren estatuaren eskumenerako zerbitzu edo lineetan, administrazio eskumendunak nahitaezko txostena eskatu beharko dio Arabako Foru Aldundiari, eta hilabeteko epean eman beharko du. Txostena epe horretan ematen ez bada, aldekoa izango da.

**2. – Ohiko zerbitzuak, zeintzuen ibilbidea nagusiki Arabako Lurralde Historikotik igarotzen den eta Euskal Autonomia Erkidegotik haratago doan.**

1. Ibilbide nagusia Arabako Lurralde Historikotik igarotzen den eta zati bat Euskal Autonomia Erkidegotik haratago doan bidaiarien ohiko garraio publikoko zerbitzuei dagokienez, Arabako Foru Aldundiak izango ditu zerbitzu emakidaren kontratuaren gaineko eskumenak.

2. Arabako Foru Aldundiari dagokio bidaiarien garraio publiko erregularreko zerbitzuak sortzea, bateratzea, handitzea, areagotzea eta ezabatzea, baldin eta horien ibilbidearen zatirik handiena bere lurralde historikotik igarotzen bada eta zati bat Euskal Autonomia Erkidegotik haratago bada, eta betiere honako inguruabar hauek batera gertatzen badira:

a) Linearen trafiko guztia Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzen edo aurreikusten bada; horrekin lotuta, bigarren mailako kontua izango da linearen trafikoa lurralde horretatik kanpoko zati batean gauzatzea edo aurreikustea.

b) Kanpoko tartean dagoen edo aurreikusten den trafikoak ez izatea interes handirik tarte hori kokatuta dagoen albotik autonomia erkidegoko trafikoa zuzen antolatzeke.

**1.- Transportes públicos regulares.**

Corresponde a la Diputación Foral de Álava, sin perjuicio de las competencias de la misma sobre las líneas y servicios interiores de viajeros cuyos itinerarios no excedan de los límites territoriales de aquélla de acuerdo con la distribución de competencias al respecto, las siguientes facultades:

a) La tramitación y resolución de los expedientes de creación, establecimiento, modificación, supresión de todos los servicios parciales realizados en el ámbito del Territorio Histórico y comprendidos en líneas regulares interiores de viajeros cuyo itinerario discurre por el territorio de más de una Comunidad Autónoma.

b) En los servicios o líneas de competencia del Estado objeto de expedientes de creación, establecimiento, modificación, supresión y rescate referentes a servicios que tengan tráfico con origen y destino dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Administración competente deberá solicitar informe preceptivo de la Diputación Foral de Álava, que deberá emitirse en el plazo de un mes. Si el informe no se emitiera en dicho plazo se entenderá favorable.

**2. – Servicios regulares cuyo recorrido discurre mayoritariamente por el Territorio Histórico de Álava y excedan de la Comunidad Autónoma del País Vasco.**

1. Respecto de aquellos servicios de transporte público regular de viajeros cuyo itinerario discurre en la mayor parte de su recorrido por el Territorio Histórico de Álava, y que una parte exceda de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Diputación Foral de Álava será competente respecto al contrato de concesión del servicio.

2. Corresponderá a la Diputación Foral de Álava la creación, unificación, ampliación, intensificación y supresión de servicios de transporte público regular de viajeros cuyo itinerario discurre en la mayor parte de su recorrido por su Territorio Histórico y que una parte exceda de la Comunidad Autónoma del País Vasco, siempre que concurren conjuntamente las siguientes circunstancias:

a) Que el tráfico de la línea se produzca o se prevea en su práctica totalidad en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, teniendo carácter puramente residual el que se produzca o prevea en el tramo situado fuera de dicho territorio.

b) Que el tráfico existente o previsible en el tramo exterior no implique un interés relevante para la adecuada ordenación del tráfico de la Comunidad Autónoma vecina a la que dicho tramo pertenezca.

Arabako Foru Aldundiak, horrelako kasuetan, eraginpeko autonomia erkidegoei entzungo die aurretik.

### **3. – Ibilbidea nagusiki Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo duten zerbitzuak.**

Arabako Foru Aldundiaren eskumenekoa da ibilbidea nagusiki Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo duten zerbitzuetan esku hartzea.

Eskumen hori egikaritzuz, administrazio titularrak nahitaezko txostena eskatu beharko dio Arabako Foru Aldundiari bere lurraldearen barnean trafikoak ezartzeari edo ez ezartzeari, trafikoak kointziditzeari eta lineak intentsifikatzeari buruz, eta txosten hori hilabeteko epean eman beharko da. Txostena epe horretan ematen ez bada, aldekoa izango da.

Halaber, eta Arabako Foru Aldundiak hala eskatuta, administrazio titularrak trafiko horiek sortu, aldatu edo ezabatu ahal izango ditu, albo batera utzi gabe foru administrazioak linearen administrazio titularrari Arabako Lurralde Historikoan trafikoak sortzeagatik, aldatzeagatik edo ezetzatzeagatik sortutako kalteak direla-eta konpentsatu beharra.

### **4. – Erabilera bereziko zerbitzuak.**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko foru organoen eskumena izango da Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako jarduera zentroetarako helmuga duten erabilera bereziko bidaiarien ohiko garraio zerbitzuak kontrolatzea.

2. Eskumen hori egikaritzuz, Arabako Foru Aldundiari dagokio beharrezko baimenak ematea eta zerbitzu prestazioaren gaineko administrazio kudeaketako zeregin nagusiak gauzatzea.

### **Hirugarrena. – ESKATUTAKO GARRAIO PUBLIKOA.**

1. EAEko lurralde historikoetako foru organoen eskumena da errepide bidezko bidaiarien eta salgaien eskatutako garraio publikoko zerbitzuak antolatzea, ibilgailuaren egoitza edo enpresaren egoitza nagusiaren helbidea edo autorizazioaren xede izango den sukurtsaletako batena Euskal Autonomia Erkidegoan finkatuta dagoenean, eta hori guztia, ibilgailu zehatzei edo enpresa baimenei dagozkien baimenen arabera.

2. Eskumen hori egikaritzuz, Arabako Foru Aldundiari dagokio jarduerari dagozkion baimenak ematea edo ukatzea, baita baimen horiek eskualdatzea, bisatzea, baja

La Diputación Foral de Álava, en estos casos, contará con la previa audiencia de las Comunidades Autónomas afectadas.

### **3. – Servicios cuyo recorrido discorra mayoritariamente fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco.**

Es facultad de la Diputación Foral de Álava la intervención en los servicios cuyo recorrido discorra mayoritariamente fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En el ejercicio de esta competencia, la Administración titular deberá solicitar informe preceptivo a la Diputación Foral de Álava sobre el establecimiento o no de tráficos dentro de su territorio, coincidencias de tráfico e intensificación de líneas, que deberá emitirse en el plazo de un mes. Si el informe no se emitiera en dicho plazo se entenderá favorable

Asimismo, y a instancia de la Diputación Foral de Álava, la Administración titular podrá proceder a la creación, modificación o supresión de los citados tráficos, sin perjuicio de la obligación de la Administración Foral de compensar a la Administración titular de la línea por los perjuicios ocasionados por la creación, modificación o supresión de tráficos en el Territorio Histórico de Álava.

### **4. – Servicios de uso especial.**

1. Será facultad de los órganos forales de los Territorios Históricos del País Vasco el control de los servicios de transporte regular de viajeros de uso especial con destino en centros de actividad ubicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. En el ejercicio de esta facultad corresponden a la Diputación Foral de Álava el otorgamiento de las correspondientes autorizaciones, así como las funciones generales de gestión administrativa sobre prestación de servicios.

### **Tercera. – TRANSPORTE PÚBLICO DISCRECIONAL.**

1. Es facultad de los órganos forales de los Territorios Históricos del País Vasco la ordenación de los servicios de transporte público discrecional de viajeros y mercancías por carretera, cuando el lugar de residencia del vehículo o el domicilio de la sede central de la empresa o el de alguna de sus sucursales a la que vaya a estar referida la autorización estén fijados dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco, según se trate de autorizaciones referidas a vehículos concretos o de autorizaciones de empresa.

2. En el ejercicio de esta facultad corresponderán a la Diputación Foral de Álava el otorgamiento o denegación de las autorizaciones a que se encuentre sometida la

ematea eta birgaitzea ere, eta garraioa behar bezala antolatzeko ezartzen diren jarduketak egitea.

3. Jarduera egikaritzeko baimen berriak emateari dagokionez, Arabako Foru Aldundiak orokorrean estatuko eta Europar Batasuneko araudian ezarritako betekizunak beteko ditu.

#### **Laugarrena. – GARRAIO PRIBATU OSAGARRIA.**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako foru organoei dagokie Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten enpresek errepide bidez egindako pertsonen eta salgaien garraio pribatua antolatzea.

2. Eskumen horren barne dago baimenak eman eta ukatzea, eskualdatzea, ikus onestea, bajaran ematea, eraberritzea eta garraioa zuzen antolatzeko beharrezko jarduketak egitea.

#### **Bosgarrena. – JARDUERA LAGUNTZAILE ETA OSAGARRIAK.**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako foru organoen eskumenen barne dago Euskal Autonomia Erkidegoan helbideratuta dauden edo helbideratuko diren jarduera laguntzaile eta osagarriak antolatzea.

2. Eskumen hori egikaritzuz, Arabako Foru Aldundiari dagokio, beste ahal batzuen artean, baimenak ematea edo ukatzea, horiek eskualdatzea, ikus onestea, bajaran ematea eta jarduera horiek behar bezala antolatzeko ezartzen diren jarduketak egitea.

#### **Seigarrena. – ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA ETA JARDUERA LAGUNTZAILEAK ETA OSAGARRIAK EGITEKO ESKUMEN PROFESIONALA.**

Arabako Foru Aldundiaren eskumenekoa da garraioaren jarduera profesionala egiteko eskumen profesionala eskuratzea, egiaztatzea eta kontrolatzea. Horren barne dago egiaztapen probak deitu eta egitea eta errepide bidezko jarduera egikaritzeko eskumen profesionala administrazio titulua ematea.

#### **Zazpigarrena. – IKUSKARITZA ETA ZEHAPENAK.**

1. Arabako Foru Aldundiak gauzatuko du errepide bidezko garraioari dagozkion zerbitzuen eta gainerako jardueren ikuskapena, bai enpresek bere lurraldean

aktividad, su transmisión, visado, baja y rehabilitación, así como cuantas actuaciones se establezcan para la correcta ordenación del transporte.

3. En orden al otorgamiento de nuevas autorizaciones para el ejercicio de la actividad la Diputación Foral de Álava se ajustará a los requisitos que con carácter general establezca la normativa del Estado y de la Unión Europea.

#### **Cuarta. – TRANSPORTE PRIVADO COMPLEMENTARIO.**

1. Se atribuye a los órganos forales de los Territorios Históricos del País Vasco la ordenación del transporte privado de personas y mercancías por carretera realizado por empresas que tengan su residencia en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. Esta facultad comprende el otorgamiento o denegación de las autorizaciones, su transmisión, visado, baja y rehabilitación y cuantas actuaciones se establezcan para la correcta ordenación del transporte.

#### **Quinta. – ACTIVIDADES AUXILIARES Y COMPLEMENTARIAS.**

1. Es competencia de los órganos forales de los Territorios Históricos del País Vasco la ordenación de las actividades auxiliares y complementarias del transporte domiciliadas o que se domicilien en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. En el ejercicio de esta competencia corresponden, entre otras facultades, a la Diputación Foral de Álava el otorgamiento o denegación de las autorizaciones, su transmisión, visado, baja y cuantas actuaciones se establezcan para la correcta ordenación de dichas actividades.

#### **Sexta. – COMPETENCIA PROFESIONAL PARA EL EJERCICIO DE LA ACTIVIDAD DEL TRANSPORTE POR CARRETERA Y ACTIVIDADES AUXILIARES Y COMPLEMENTARIAS.**

La Diputación Foral de Álava asume la competencia relativa a la adquisición, acreditación y control de la competencia profesional exigida para el ejercicio profesional del transporte, lo que incluye la convocatoria y realización de las pruebas de acreditación y expedición del título administrativo de competencia profesional para el ejercicio de la actividad de transporte por carretera.

#### **Séptima. – INSPECCIÓN Y SANCIÓN.**

1. La Diputación Foral de Álava ejercerá la inspección de todos los servicios y actividades del transporte por carretera en los centros de trabajo que las empresas

dituzten lantokietan bai haren lurraldetik igarotzen diren ibilgailuetan, edozein dela ere, bi kasuetan, ikuskatzekoak diren zerbitzuak eta jarduerak gauzatu diren lurralde eremua.

2. Halaber, foru organoen eskumenekoa da aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat egiten diren ikuskaritza jarduketan egikaritzean detektatzen diren arau-hausteei buruzko zehapen eskumena egikaritzea.

Zehapen eskumenaren barne dago prozedurak eta baliabideak hastea, izapidetzea eta ebatzea, eta indarrean dagoen legerian aurreikusitako behin-behineko kautelazko neurriak ezartzea.

Hala ere, ezarri litezkeen beste zehapenak albo batera utzi gabe, foru organoen eskumena soilik estatuaren eskumeneko erabilera orokorreko bidaiarien ohiko garraio zerbitzu publiko baten emakida kontratua suntsiarazteko proposamena egiteko izango da, eta estatuko administrazio orokorreko organo eskudunaren ardura izango da horri dagokion gainerako guztia erabakitzea, hala dagokionean, ebazpen prozedura hastea, izapidetzea eta ebatzea, hain zuzen ere.

3. Euskal Autonomia Erkidegoan garraio alorreko eskumena duen sailak, foru aldundiekin batera, garraioaren urteko ikuskaritza plana onetsiko du. Urteko ikuskaritza planean ezarrita egongo dira errepide bidezko garraioaren ikuskaritza eginkizunei aplikatu beharreko zuzentarau orokorrak, eta, hori guztia, irizpideak bateratzeko eta Euskal Autonomia Erkidego osoan ikuskaritza jarduera homogeneizatzeko eta objektibatzeke. Plan horretan aurreikusi ahal izango da garraio mota jakin baterako ikuskaritza kanpaina espezifikokoak egin beharra.

#### **Zortzigarrena. – ARBITRAJE BATZORDEAK.**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko foru organoek antolatuko dituzte garraio alorrean sor litezkeen merkataritza izaerako eztabaidak ebazteko arbitraje sistemak.

2. Eskumen hori egikaritzuz, foru aldundiei dagokie Garraioko Arbitraje Batzordeak ezartzea.

#### **Bederatzigarrena. – ESKUMENEN BANAKETA.**

1. Hitzarmen honetan lurralde historikoen eta foru aldundien alde aitortutako eskumenak modu honetan egikarituko dira:

a) Erabilera orokorreko ohiko zerbitzuengatik esleitutako eskumenak zerbitzu horiek ibilbide gehien duten lurralde historikoko foru organoek egikarituko dituzte.

tengan en su territorio y en los vehículos que circulen por él, con independencia en ambos casos del ámbito territorial en que se hayan desarrollado los servicios y actividades objeto de inspección.

2. Asimismo, es facultad de los órganos forales la potestad sancionadora respecto de las infracciones que se detecten en el ejercicio de actuaciones inspectoras que se lleven a cabo de conformidad con lo dispuesto en el párrafo anterior.

La potestad sancionadora conlleva la facultad de incoación, instrucción y resolución de los correspondientes procedimientos y recursos e incluye la adopción de las medidas cautelares provisionales previstas en la legislación vigente.

No obstante, sin perjuicio de cualesquiera otras sanciones que, en su caso, pudiesen corresponder, los órganos forales sólo quedan facultados para proponer la resolución del contrato de concesión de un servicio público de transporte regular de viajeros de uso general de competencia estatal, correspondiendo al órgano competente de la Administración General del Estado acordar lo que proceda al respecto y, en su caso, incoar, tramitar y resolver correspondiente procedimiento de resolución.

3. El Departamento competente en materia de transporte de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en concurrencia con las Diputaciones Forales, aprobará un Plan Anual de Inspección del Transporte. El Plan Anual de Inspección establecerá las directrices generales aplicables a las funciones inspectoras del transporte por carretera, con la finalidad de unificar criterios, homogeneizar y objetivar la actividad inspectora en todo el territorio del País Vasco. Este Plan podrá prever la realización de campañas específicas de inspección sobre una clase determinada de transporte.

#### **Octava. – JUNTAS ARBITRALES.**

1. Los órganos forales de los Territorios Históricos del País Vasco organizarán los sistemas arbitrales para la resolución de las controversias de carácter mercantil que se susciten en materia de transporte.

2. En el ejercicio de esta facultad corresponde a las Diputaciones Forales el establecimiento de las Juntas Arbitrales de Transporte.

#### **Novena. – DISTRIBUCIÓN DE COMPETENCIAS.**

1. Las facultades reconocidas en este Convenio a favor de los Territorios Históricos y las Diputaciones Forales serán ejercidas de la siguiente forma:

a) Cuando se trate de facultades atribuidas en razón de servicios regulares de uso general, por los órganos forales del Territorio Histórico en que tengan mayor recorrido.

b) Jarduera zentroagatik edo enpresaren edo ibilgailuaren egoitzarengatik esleitutako eskumenak lehenengoak kokatu edo ezarritako lurralde historikoetako foru organoek egikarituko dituzte.

2. Hitzarmen honen arabera lurralde historikoei esleitutako eskumenak aplikatu beharreko legeriaren, goi ikuskaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunaren koordinazio irizpideen arabera egikarituko dira.

#### **Hamargarrena. - LAGUNTZA ETA LANKIDETZA.**

Arabako Foru Aldundiak, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak eta estatuko administrazio orokorrak eskumenak hobekien egikaritzeko beharrezkoak diren datuak, aurrekariak eta txostenak emango dizkiete elkarri.

#### **Hamaikagarrena. - BITARTEKOAK ESKUALDATZEA.**

Autonomia elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaia lurraldeetako foruzko ihardutze erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 2. apartatuko lehenengo xedapen iragankorrean aurreikusita dauden Eusko Jaurkitzaren eta foru aldundien arteko Batzorde Mistoak hitzarmen hau sinatzean bilduko dira, hitzarmen honetaz baliatuz eta bakoitzak bere gain hartutako funtzioen arabera, giza baliabideak eta baliabide materialak eskualdatzeko.

#### **Hamabigarrena. - HITZARMENA ALDATZEA.**

1. Hitzarmen honen aldaketak eguneratze eta parekatze hau egiteko prozedura berberaren bidez gauzatuko dira.

2. Errepide bidezko garraioaren araudian berritze garrantzitsu bat gertatuz gero eta horrek hitzarmen honen edukari eraginez gero, administrazio sinatzaileek, adostasunez, eguneratu egingo dute.

#### **Hamahirugarrena. - 1950EKO MARTXOAREN 9KO HITZARMENAK EGUNERATZEA.**

Hitzarmen hau indarrean jartzen denean, 1950eko martxoaren 9an Arabako Foru Aldundiaren eta orduko Obra Publikoen Ministerioaren artean sinatutako hitzarmenak eguneratuko dira.

#### **Hamalagarrena. - INDARREAN SARTZEA ETA INDARRALDIA.**

b) Cuando se trate de facultades atribuidas en razón del lugar del centro de actividad o domicilio de la empresa o vehículo, por los órganos forales del Territorio Histórico en que se ubiquen o se establezcan.

2. Las facultades reconocidas a los Territorios Históricos por el presente Convenio se ejercerán de acuerdo con la legislación que resulte aplicable, la alta inspección y los criterios de coordinación de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

#### **Décima. - COLABORACIÓN Y COOPERACIÓN.**

La Diputación Foral de Álava, la Administración General del País Vasco y la Administración General del Estado se facilitarán recíprocamente cuantos datos, antecedentes e informes estimen o sean precisos para el mejor ejercicio de sus competencias.

#### **Decimoprimer. - TRASPASO DE MEDIOS.**

Las Comisiones Mixtas que se prevén en la Disposición Transitoria Primera, apartado 2 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos, entre el Gobierno Vasco y cada una de las Diputaciones Forales, se reunirán a la firma del presente Convenio a fin de acordar los respectivos traspasos de medios personales y materiales en función de las facultades asumidas por éstas en virtud del presente Convenio.

#### **Decimosegunda. - MODIFICACIÓN DEL CONVENIO.**

1. Cualquier modificación del presente Convenio se efectuará por el mismo procedimiento seguido para esta actualización y equiparación.

2. En el caso de que se produzca una reforma sustancial en la normativa del transporte por carretera que afecte al contenido del presente Convenio, se procederá por las Administraciones firmantes del mismo, de común acuerdo, a su pertinente actualización.

#### **Decimotercera. - ACTUALIZACIÓN DE LOS CONVENIOS DE 9 DE MARZO DE 1950.**

A la entrada en vigor del presente Convenio quedan actualizados los Convenios de 9 de marzo de 1950 suscritos entre la Diputación Foral de Álava y el entonces Ministerio de Obras Públicas.

#### **Decimocuarta. - ENTRADA EN VIGOR Y VIGENCIA.**

1. Hitzarmen hau alderdien arteko oniritzia emanda hobetuko da eta formalizatzen denetik aurrera zenbatzen hasita 10 egun baliouduneko epean estatuko aldizkari ofizialean, Euskal Autonomia Erkidegoko aldizkari ofizialean eta Arabako Lurralde Historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da.

2. Hitzarmen honen indarraldia mugagabea izango da, hau da, hamabigarren klausulan ezarritako prozeduraren arabera aldatzen denera arteko indarraldia izango dute.

1. El presente Convenio se perfeccionará con la prestación del consentimiento de las partes y será publicado en el plazo de 10 días hábiles desde su formalización en el Boletín Oficial del Estado, en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

2. El presente Convenio tendrá una vigencia ilimitada hasta su modificación de acuerdo con el procedimiento establecido en la cláusula decimosegunda.